



AZTERKETAK | 39

2019ko EKAINA

**Soldatak Gipuzkoan:
eros ahalmena behera,
desberdintasunak gora**

Soldatak Gipuzkoan: eros ahalmena behera, desberdintasunak gora

1. Soldaten batez bestekoa %1,9 besterik ez da igo bederatzi urtean.....	3
2. Eros ahalmena 10 puntu murriztu da.....	4
3. Desberdintasunak areagotuz jarraitzen dute	5
4. Genero soldata arrakala altuak berean darrai	6
5. Migranteen egoera, erabat kaxkarra	7
6. Gazteen prekarietatea	8
7. Ondorioak.....	8

Dokumentu honetan, Gipuzkoako soldaten nondik norakoak aztertuko ditugu. Horretarako 2008tik 2017rako datuak izango ditugu oinarri. 2008 urtea hartzea oinarritzat ez da ausazkoa; izan ere, urte hori izan zen krisia hasi zen urtea eta gure asmoa da dokumentu honetan krisiak soldaten bilakaeran izan duen eragina ikustea. Honela, bilakaeraren analisia egin ahalko dugu, betiere dagokion adierazlearekin alderaketa eginez, hala nola, Kontsumo Prezio Indizearekin (KPI). Hurrengo lerroetan, soldaten bilakaera ez ezik, soldataren banaketa, banaketa hori sexuka nola ematen den, migranteengan zer nolako eragina duen edota gazteen egoera prekarioa ere ikusiko dugu.


Aipatu beharra dago soldatei buruz informazio fidagarri oso gutxi dagoela. EAEko aldundiek datu esanguratsuak dituzten arren, Gipuzkoako aldundiak baino ez ditu argitaratu datuak honen inguruan. Argitaratu den azkenengo dokumentuak 2017ko datuak ematen ditu, honako izenburua duelarik "soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan". Datu horiek enpresek ogasunari ematen dizkien lan etekin eta aktibitate ekonomikoen atxikipen eta sarreretatik jaso dira. Nahiz eta datuak bakarrik Gipuzkoakoak izan, beste herrialdeetan egoera eta bilakaera antzekoa dela uste dugu. Beraz, ondorioak Euskal Herri osorako baliogarriak izan daitezke.

1. SOLDATEN BATEZ BESTEKOA %1,9 BESTERIK EZ DA IGO BEDERATZI URTEAN

2017. urtean 319.192 pertsona izan ziren Gipuzkoan soldata jaso zutenak. 1. grafikoan ikusi daitekeen bezala, soldataren batez bestekoa 24.406 eurokoa izan zen 2017an. 2008koarekin alderatuz ez zen egon aldaketa esanguratsurik, soilik %1,9 igo zen zenbateko hori, 2008an 23.950 euro izan baitzen. Garrantzitsua da aipatzea, gainera, soldaten batez bestekoak joera beherakorra izan zuela azken urtean; 2016tik 2017ra 79 eurotan murriztu zen.

Medianari dagokionez (mediana datuak txikienetik handienara ordenaturik daudela erdiko balioa kontuan hartzen duen adierazlea da, beraz, alde banatara datuen %50ak uzten ditu), ikusten dugu bederatzi urtean zenbatekoak behera egin zuela. %1,06ko murrizketa izan zuen, honek, hirugarren atalean ikusiko dugun moduan, zera ondorioztatzen du: desberdintasunak areagotu egin zirela gehien eta gutxien jasotzen zutenen artean, soldata baxuak soldata altuak baino gutxiago hazi zirelako.

Soldaten batez bestekoa eta mediana 2008-2017



2. EROS AHALMENA 10 PUNTU MURRIZTU DA

4. or


Eros ahalmena igo den ala ez ikusteko soldataren batez bestekoaren bilakaera Kontsumo Prezio Indizearekin (KPI) alderatu beharra dago.

Alderaketa hori egiteko 2008 urtea jarri dugu oinarri modura, hau da, soldaten batez bestekoari zein KPlaren datuei 100 balioa eman diogu 2008an, hortik aurrera bien bilakaera alderatzeko asmoarekin. 2. grafikoan ikusi daitekeen moduan, KPlaren igoera %11,8koa izan zen (INEk emandako datuaren arabera) 2008 eta 2017 urteen artean Estatuan, soldatarena baino askoz altuagoa, zeina %1,9koa izan zen. KPI soldata baino ia hamar puntu gehiago igotzearen ondorioz langile klasearen eros ahalmena izugarri jeitsi zen (%9,9). Horrek ekonomian islada zuzena izan zuen batez ere krisiaren lehen urteetan eta badu oraindik ere, kontsumoaren murrizketan, beste gauza askoren artean.

Errezesio garaian eros ahalmena murrizten hasi zen, baina egoera hobetu zenean, hau da, hazkunde garaian, soldatek ez zuten hobera egin. Ditugun datu berriei erreparatzen badiugu, hau da 2017 urtekoei, ikusi daiteke KPlak soldatak baino gehiago hazten jarraitu zuela, batetik %1,6 dugu, bestetik %0,3ko jeitsiera. Hortaz, eros ahalmenaren murriztea krisiaren garaiko fenomeno bat ez ezik hazkunde garaikoarena ere izan zen.

Bilakera honen arrazoiak ugariak izan dira. Hala nola, enpresa edo sektore bakoitzean izandako soldaten bilakaera, baita ere lehen eta bigarren sektoretik hirugarren sektorerantz langile asko mugitu izana (egoeraren azterketan sarritan aztertu dugun bezala); jakin badakigu hirugarren sektoreko lana orokorrean prekarioagoa dela hainbat aldiz salatu dugun moduan. Beste faktore bat lanaldi partzialaren areagotzea izan da.

Soldaten eta KPlaren bilakaera 2008-2017 (Oinarri urtea 2008=100)



3. DESBERDINTASUNAK AREAGOTUZ JARRAITZEN DUTE


Soldataren banaketa nola ematen den jakitea ezinbestekoa da gizartean diren desberdintasunak ikusteko tresnetako bat delako.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak dezilen bidez aztertzen du banaketa. Horiek osatzen dira soldata jasotzaile guztiak txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

2017. urtean soldatarik baxuenak jasotzen zituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiek jasotako soldaten %0,4 suposatu zuen. Aldiz, soldatarik altuenak jaso zituztenek (D10), soldata osoen %27. Lehenengo bi dezilek, hau da, pertsona kopuru totalaren %20ak, soldata totalaren %43,8 jaso zuten. Aitzitik, soldata baxuenen %20k soldata totalaren %2,5 baino ez. Desberdintasunak bistakoak dira.

Gainera, egoera hori krisiarekin larriagotu egin da erabat 2008 eta 2017 urteen artean. Epealdi horretan lehenengo sei taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen zituztenak, jaitsi egin ziren portzentualki eta azkeneko lau taldeak igo. Gehien jaitsi zen taldea soldata txikienak zituztenena da (D1), grafikoan ikusi daitekeen bezala, %0,7tik %0,4ra jeitsi zen, hau da, %42,9. Aldiz, gehiena igotzen diren dezilak D8, D9 eta D10 dira, hain zuzen D10a, %25,5etik %27ra, hau da, %5,9.

Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera 2008 eta 2017 urteetan



Soldaten D10/D1 erlazioak, soldata handienak dituztenak (D10), soldata txikienak dituztenekin alderatzen du (D1). 2017an 60,5eko ratioa egon zen bi dezilen artean, horrek zera esan nahi du: soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen zituzten soldatak, soldata txikiaren populazioaren %10ak jasotzen zituztenak baino 60,5 aldiz handiagoak izan zirela, 2008an 38,9koa zen.

Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2017an 17,0ko ratio bat egon zen, hau da, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen zituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %20ak jasotzen zituztenak baino 17,0 aldiz handiagoak izan ziren. 2008tik ratio hori ere hazi egin zen, urte hartan 12,6koa zen.

Soldaten ratioa

	2008	2017
Soldatak D10/D1	38,9	60,5
Soldatak S80/20	12,6	17


Desberdintasun horiek areagotu egin dira talde edo dezila guztien eros ahalmenaren galera eman den bitartean. Dezila guztien soldaten batez bestekoa KPI baino maila txikiagoan hazi delako gertatu da hori. Desberdintasunen aregotze hori soldata baxuena izan dutenen eros ahalmenaren galera soldata altuena dutenena baino askoz altuagoa izan delako gertatu da.

4. GENERO SOLDATA ARRAKALA ALTUAK BEREAN DARRAI

Azken urteetan, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala, eta ez soilik formala, bilatzeko bidean, feminismoaren aldarri nagusietako bat sexuaren arabera soldata arrakala bukatzea izan da. Horregatik, soldataren gaia jorratzen dugunean, ezinbestekoa ikusten dugu egiturazkoa den genero desberdintasun egoeraren ondorio larri honi heldu eta hura salatzea.

Soldata jaso zutenetatik %46,6 izan ziren emakumeak eta gainontzeko %53,4a gizonak. Desberdintasunak egon arren, aipatu beharra dago 2008 urtean, %43,6 emakumeak zirela eta %56,4 gizonak, hortaz desberdintasunak ehunekoari dagokionez murriztu egin dira. Baina soldaten zenbatekoari erreparatzen badiogu, zifrak desberdintasun handiagoak erakusten dituzte: emakumeak soldata totalaren %39,5 jaso zuten eta gizonak gainontzekoa, hau da, %60,5.

Soldaten banaketa sexuaren arabera. 2017




Soldatak Gipuzkoan: eros ahalmena behera, desberdintasunak gora

7. or

Lehen aipatutako soldata arrakala hurrengo datuek baieztatzen dute. Soldatapeko emakume langileek 21.007 euroko batez besteko soldata jaso zuten, gizonek, ordea, 28.052 euro. Beraz, 7.045 eurokoa izan zen bata eta bestearen arteko desberdintasuna edo beste modu batera esanda %25,1eko soldata arrakala egon zen 2017an. 2008an desberdintasuna 7.813koa zen, hau da, urte hartan %28,2ko arrakala zegoen.

Esan beharra dago 2008tik 2009ra egon zela arrakala honen jaitsiera nabarmena, %24,8ra heldu zelako. Arrakala horrek 2013an jo zuen behea (%24,6), baina urte hartatik 2017ra egoerak okerre-
ra egin zuen. Ondorioztatu dezakegu ez dela aplikatu aipatutako diferentzia murrizteko neurririk, diferentzia hori era hutsalean murriztu delako eta zenbatekoa handia jarraitzen izaten duelako.

Emakumeen eta gizonen soldaten batez bestekoa (2008-2013-2017)



Ez dugu ahaztu behar, Ogasunean ageri diren soldatapeko emakumeen soldatak aztertu ditugula honakoan, azterketa honetatik kanpo geratzen direla, beraz, soldatapean ez dauden etxe-
ko eta zaintza lanak burutzen dituzten emakume asko. Hortaz, horregatik eta beste faktoreengatik desberdintasunak hemen ikusitakoak baino handiagoak dira.


5. MIGRANTEEN EGOERA, ERABAT KAXKARRA

Atal honetan, soldatak espainiar Estatuko nazionalitatea dutenak kanpoko nazionalitatea dutenekin konparatuko ditugu (hori da Gipuzkoako Aldundiak ematen duen banaketa). Langile kanpotarrak Gipuzkoan %6,2 izan ziren 2017 urtean, hau da, 19.647 pertsona. 2008tik aurrera krisiaren eraginez zenbateko hori murriztuz joan zen 2015erarte; 2015etik 2017ra, ordea, igoera garrantzitsua egon zen, 15.792tik 19.647ra. Baita ere esan beharra dago, 2005etik krisia hasi arte izugarritzko igoera egon zela, 9.337tik 16.433ra, hain zuzen.

Zenbatekoari dagokionez, arrakala izugarria egon zen espainiar Estatuko nazionalitatea duten eta kanpoko nazionalitatea dutenen artean, 25.170 euro jasotzen zuten lehenengoek eta erdia gutxi gora behera (12.766 euro) bigarrenak. Hau da, %49,3ko arrakala zegoen. Egoera hau salatu

egin behar da, eta gainera, krisiak alderaketa honetan eragin negatiboa izan du kanpotarrenan. Estatuko nazionalitatea dutenen soldata %2,4 igo zen, kanpotarrena, ordea, %0,1 soilik.

Batez besteko soldatak nazionalitateen arabera (2008-2017)



6. GAZTEEN PREKARIETATEA

19 eta 25 urteen arteko gazteak dira prekariedade handiena pairatu zutenak Gipuzkoan. Adin tarte horretan izandako soldaten batez bestekoa 7.374 eurokoa izan zen 2017an. Kantitate hori hilabetero 526,7 euro eskasekoa besterik ez zen izan (14 ordainketa). Hau da, ez zen Lanbide arteko gutxieneko soldatera iristen, 707,7 eurokoa zena. Hortaz, 19 eta 25 urte arteko gazteen batez bestekoak gutxieneko soldata baino 181 euro gutxiago irabazi zuen. Horrek zera esan nahi du, gazteen dependentzia egoera izugarria dela.

7. ONDORIOAK

Kapitalismo patriarkala eta aplikatzen diren politikak dira aipatutakoa gertatzearen erantzule nagusiak. Gainera, datuek adierazten duten moduan, krisiak nabarmen areagotu ditu desberdintasunak. Beraz, krisi ziklikoak kapitalismoaren sustengurako beharrezkoak dira, kapitala metatzea da dinamika kapitalistak duen joera eta are gehiago krisi garaian, bere ofentsiba gero eta handiagoa eginez. Honela, aberatsenak gero eta aberatsago egiten dira; eta pobreenak gero eta pobregago.

Hori aipatuta, honakoa ondorioztatzen da:

1. Soldaten eta aberastasunaren banaketaren inguruko informazio eta gardentasun falta nabarmena dago. Horrek boterea dutenei gizartean existitzen diren ezberdintasunak mantentzeko eta euren egoeran jarraitzeko erraztasunak ematen dizkie. Errealitate hori ezkutuan mantentzeko interes enpresariala nabaria da.
2. Botere ekonomiko eta finantzarioa soldaten aurkako ekimena gauzatzen dabil, hala, langileriaren bizi-baldintzak okertzeko eta bestalde euren mozkin eta aberastasuna handitzeko asmoz. Hau, oro har, gizartearen eta ongizate estatuaren aurka ere aplikatzen dute.

3. Soldatek, eros-ahalmenean, 10 puntu galdu dituzte azken hamarkadan. Bilakaera hau subprime krisiaren hasierarekin batera eman zen eta azken urteetako hazkunde ekonomikoaren garaian ere jarraitu du. Aipatutakoari gehitu behar zaio enplegu maila 2008koaren oso azpitik dagoela, Barne Proiektu Gordina, ordea, gainetik dago. Honela, lan errentetatik enpresari eta kapital errentetara lekualdatze nabaria ematen ari da.
4. Azken urteetan soldata desberdintasunak izugarri egin du gora, diru sarrera handienak dituzten %10aren soldaten batez bestekoak diru sarrera txikienak dituzten %10aren soldaten batez bestekoak baino 60 aldiz handiago izateraino.
5. Soldaten baitan diskriminazio mota ugari ematen dira:
 - Emakumeen soldata gizonena baino dezente baxuagoa da (%25).
 - Migranteek espainiar nazionalitatea dutenen soldaten erdia jasotzen dute.
 - Gazteak egoera izugarri prekarioan bizi dira, soldaten batez bestekoa ez zen LGSra iritsi ere egin.
6. Soldaten eros-ahalmena handitu beharra dago. Horretarako beharrezkoa da prekarietatearen aurkako borrokan sakontzea, eta baita ere aplikatu diren lan eta negozio kolektiboaren erreformak atzera botatzea. Hori langilego klasearen antolakuntzaz eta borrokaz bakarrik lortu daiteke. ELAk bere konpromisoa berresten du borroka honetan.

OHARRAK:

This image shows a single sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.